

Jatorrizko Erdi Aroko harresia atzera emana zegoen herriaren barrualdera (6,40 m inguru ekialdera), zabalera txikiagoa zuen (1,64 m), eta, egiaztatu ahal izan zen bezala, erabat desegina zegoen egungo orubearen barruan, nahiz eta nabari zen zer trazadura izango zuen (orubearen bi sektoreen arteko jauzi maila).

La muralla medieval original, retranqueada hacia el interior de la población (a unos 6,40 m al O), presentaba una anchura más reducida (1,64 m), y tal y como se pudo comprobar había sido completamente desmantelada en el interior del actual solar, aunque se intuía su posible trazado (escalón de salto entre ambos sectores del solar).

A. Moraza Barea

C.11.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.11.2.1. Aitzbitarte III aztarnategia

Zuzendaritza: Ana B. Marín-Arroyo
Finantzaketa: Europako Ikerketa
Kontseilua

This document presents the interventions carried out during the two first seasons of excavations in the entrance sections of Aitzbitarte III, in the framework of a comprehensive project designed to learn more about the transition from the Middle to Upper Palaeolithic in the eastern part of the Cantabrian Region. Over the past two seasons, we have extended the excavations carried out by J. Altuna by a further 2 m², reaching level III (beds 4 and 5). Moreover, samples were taken in the different profiles of the excavated area in order to determine the site's chronology, environment and formation processes, as well as the species present.

2022ko irailean eta 2023ko ekain-uztailean egin ziren, hurrenez hurren, I. eta II. indusketa kanpainak Aitzbitarte III aztarnategian (Errenteria, Gipuzkoa). Lehenengo kanpainako lanak honako hauek izan ziren: leizearen kontserbazio egoera baloratzea, azken esku hartzea egin zenetik 20 urte igaro ondoren; estratigrafiaren osotasuna ebaluatzea; eta planteatutako helburu zientifiko berriak aztarnategian aplikatzeko modukoak izan daitezkeen jakitea. Aitzbitarte III leizeko esku hartzearen helburu nagusia da Kantauri itsasoko ekialdeko populazio neandertalen lekua (Moustier aldikoak) gizaki modernoek hartzeko prozesua nola izan zen ezagutzea, Aitzbitarte III leizeko giza okupazio etengabeen kronologia, estratigrafia eta ingurunea zehaztasun handiagoz ezagutzeko. Aztarnategian egin den azterketa hori diziplina anitzeko ikuspegiarekin egin da, hainbat espezialistak hartu baitute parte. Horri esker, erabat ulertu ahal izango dira, bai aztarnategiaren eraketa, bai giza jarduerak edo gizakiak ez diren beste agente biologiko batzuenak, bai eta gertatu diren deposizio osteko prozesuak ere. Aitzbitarte III aztarnategi arkeologikoak Goi Paleolitoaren hasierako sekuentzia estratigrafiko garrantzitsua du –batez ere, Gravette aldiko okupazio nabarmenekin–, bai eta Goi Paleolitoaren hasieraren eta Erdi Paleolitoaren arteko trantsizio fasea ere, oraindik gutxi ezagutzen dena. Berriki egindako kronometria lan batzuek (Marín-Arroyo et al., 2018; Altuna et al., 2011; 2013) agerian utzi dute Gravette aldiko taldeak goiz agertu zirela aztarnategi honetan Kantauri Eskualdean. Horrek egiaztatuko luke kultura gravettiarraren hedapenaren hipotesia Noailles zulakaitzekin ekialdeko muturrean zentratutako gune nuklear batetik Kantauri Eskualdeko gainerako eremurantz, une klimatiko gogorrean (Jones et al 2018). Gainera, 2015etik ezagutzen da Aitzbitarte III leizean Gravette aldiko labar artearen presentzia, eta horrek are gehiago indartzen du aztarnategi honek kultur gune hori ulertzeko duen interesa (Garate et al. 2020).

2022ko irailaren 7tik 11ra egindako I. kanpainan erabaki zen sarrerako sektorean bakarrik esku hartzea, I37


C.11.2.1. Yacimiento de Aitzbitarte III

Dirección: Ana B. Marín-Arroyo
Financiación: Consejo Europeo
de Investigación

Durante septiembre 2022 y junio-julio 2023 se desarrollaron, respectivamente, la I y II campaña de excavación en Aitzbitarte III (Errenteria, Gipuzkoa). Los trabajos de la primera campaña se centraron en valorar el estado de conservación de la cueva tras 20 años tras su última intervención, evaluar la integridad de la estratigrafía, y conocer si los nuevos objetivos científicos planteados podrían ser factibles de aplicación al yacimiento. El objetivo principal de la intervención en Aitzbitarte III se centra en conocer el proceso de reemplazo de las poblaciones neandertales (musteriense) por humanos modernos en la zona oriental del cantábrico, obteniendo una mayor precisión cronológica, estratigráfica y ambiental de las continuas ocupaciones humanas en Aitzbitarte III. Este estudio en el yacimiento se aborda con un enfoque multidisciplinar gracias a la participación de diferentes especialistas que permitirá una comprensión íntegra, tanto de la formación del yacimiento, como de las actividades humanas o de otros agentes biológicos no humanos y los procesos post-deposicionales acontecidos. El yacimiento arqueológico de Aitzbitarte III contiene una importante secuencia estratigráfica de inicios del Paleolítico Superior - especialmente con relevantes ocupaciones gravetienses - y con una, aun poco conocida, fase de transición entre el inicio del Paleolítico superior y el Paleolítico medio. Recientes trabajos de cronometría (Marín-Arroyo et al., 2018; Altuna et al., 2011; 2013) han mostrado la temprana presencia de grupos gravetienses en este yacimiento dentro la Región Cantábrica. Esto sustentaría la hipótesis de expansión del Gravetiense con buriles de Noailles desde un área nuclear centrada en el extremo oriental hacia el resto de la Región Cantábrica, en un momento climático severo (Jones et al 2018). Además, desde 2015, se conoce en Aitzbitarte III la presencia de arte rupestre atribuido al Gravetiense, lo que refuerza aún más el interés de este yacimiento para la comprensión de este complejo cultural (Garate et al.2020).

En la I campaña realizada entre el 7 y 11 de septiembre de 2022 se decidió excavar únicamente en el sector de entrada en los cuadros I37 (sector 2 y 4), I38

Nivel III-lecho 5



Indusketa eremua goitik ikusita
III. mailako 5. geruzaren amaieran.

Vista cenital del área de excavación
al final del lecho 5 del nivel III.

(2. eta 4. sektoreak), I38 (4. sektorea) eta J38 (3. sektorea) laukietan. Profilak garbitzen eta indusketa bera egiten hasi aurretik, aztarnategiaren eredu fotogrametrikoa egin zen, 2002an J. Altunaren indusketak amaitu ondoren geratu zen bezala. Ondoren, induskatutako eremuko profilak eta lurzorua garbitu genituen, eta beste eredu fotogrametriko bat egin genuen. IV. mailako 2. sektoreko I-38 laukiaren ekialdeko profilean laginak hartu genituen mikromorfologiarako, sektore horretako IV. mailaren ezaugarri den karbono metaketaren izaera ezagutzeko. 2022ko indusketan, I. eta II. mailatan, 70 hondakin koordenatu baino gehiago (hezurrak, harria eta ikatza) berreskuratu ziren, banaka, eta 21 sedimentu poltsa orokor (50L). Kantabriako Unibertsitateko Eoadapta taldeko laborategian garbitu, flotatu eta bahetu ziren hondakin horiek.

Bigarren kanpaina 2023ko ekainaren 24tik uztailaren 4ra bitartean egin genuen. 2022ko indusketa eremuarekin jarraitu genuen, eta J38 (4. sektorea) eta K38 (3. eta 4. sektoreak) laukietara zabaldu genuen azalera. Induskatutako eremuaren azalera gaur egungo kristal eta egur hondar ugari berreskuratu genituen. Azalera hori garbitu ondoren, II. maila induskatu genuen. Material gutxi zituen, hondakin modernoekin nahasiak, eta, ziu-rrenik, leizeko beste alde batzuetatik lur gaineko materialak urak eramanda osatuko zen. II. maila, 3 eta 6 cm arteko lodierarekin, 2, 3 eta 3b geruzetan induskatu genuen. Maila hori emankorra da arkeologiaren ikuspegitik begiratuta, eta harrizko tresneria eta fauna hondakinak ditu, pixka bat aldatua dagoela ematen badu ere. 4. geruzan III. maila hasten da (Gravette aldikoa). Maila horrek itxura homogeneoagoa eta egonkorragoa du, eta horrek esan nahi du arkeologikoki ukitu gabeko maila dela, aurreko bi mailak ez bezala. 2023ko kanpaina III. mailako 4. eta 5. geruzak induskatu ditugu. Guztira, 1.200 objektu baino gehiago koordenatu ditugu eta 48 poltsa orokor berreskuratu ditugu. Hondakin horiek garbitu, flotatu eta bahetu egin dira. Gainera, II. kanpaina honetan mikromorfologia lagin berriak hartu ditugu, OSL bidez datatzeko laginak, analisi sedimentologiko eta polinikoetarako laginak, eta DNA laginak, induskatutako eremuaren iparraldeko eta mendebaldeko profiletan.

(sector 4) y J38 (sector 3). Antes de iniciar la limpieza de perfiles y la excavación propiamente dicha se realizó un modelo fotogramétrico del yacimiento tal y como había quedado tras la finalización de las excavaciones de J. Altuna en 2002. Posteriormente se limpiaron los perfiles y el suelo de la zona excavada y se realizó un nuevo modelo fotogramétrico. En el perfil este del cuadro I-38 sector 2 del nivel IV se realizó un muestreo para micromorfología que permitiese conocer la naturaleza de la acumulación carbonosa que caracteriza el nivel IV en este sector. En la excavación de 2022, que afectó a los niveles I y II, se recuperaron más de 70 restos coordinados (huesos, lítica, y carbones) de forma individualizada y 21 bolsas generales (50L) de sedimento que fueron lavados, flotados y cribados en el laboratorio del grupo Eoadapta de la Universidad de Cantabria.

En la II campaña, desarrollada entre el 24 de junio y el 4 de julio de 2023, se continuó la zona de excavación de 2022 y se amplió a los cuadros J38 (sector 4) y K38 (sectores 3 y 4). En la superficie del área excavada se recuperaron numerosos restos de cristales y madera actuales. Una vez limpiada esta superficie se excavó el nivel I, pobre en materiales, con restos modernos mezclados y probablemente formado por el transporte hídrico de materiales de superficie desde otras zonas de la cueva. El nivel II, con una potencia de entre 3 y 6 cm, se excavó en los lechos 2, 3 y 3b. Este nivel es arqueológicamente fértil con presencia de restos de industria lítica y de fauna, aunque parece algo alterado. En el lecho 4 comienza el nivel III (Gravetiense) que presenta un aspecto más homogéneo y estable, lo que sugiere que se trata de un nivel arqueológicamente intacto, a diferencia de los dos niveles previos. En la campaña de 2023 se excavaron los lechos 4 y 5 del nivel III. En total se coordinaron más de 1200 objetos y se recuperaron 48 bolsas generales que han sido lavadas, flotadas y triadas, recuperándose en ellas un rico registro de microfaua, actualmente en estudio. Además, en esta II campaña se tomaron nuevas muestras de micromorfología, muestras para datación por OSL, muestras para análisis sedimentológicos, polínicos y ADN en el sedimento en los perfiles norte y oeste del área excavada.

A.B. Marín-Arroyo, A. Lefebvre, O. Rivero Vilá, J. Ríos Garaizar, M. Arriolabengoa, L. Arnold, M. Demuro, M. Meyer, A. Estalrich, A. Gómez-Olivencia, E. Arenas Sorriquetá, L. Agudo Pérez, A. Álvarez Vena, E. Berlioz, L. Torres Iglesias, B. González Rabanal, Y. Carrión, J. Carrión, J. Ochando, M. Vidal-Cordasco, A.Mª Mateo, Á. Márquez, A. Martínez y Aizpitarte Elkarte